



AITAREN BIHOTZA

Karlos Santisteban

Inma Mendiolaren marrazkiak

Desclée De Brouwer



Zuk baduzu aitarik?

Nik ez. Badut ama, eta bi
amama, baina aitarik ez. Ezta
aitonarik ere, ni jaio baino lehen
hil ziren aitonak.



Aita ere izan nuen, jakina, baina
duela urtebete hil zen.

Lehen negar eta negar aritzen
nintzen egunero, aita izan zena
gogoan: ih, ih, ih.



Orain ere negar egiten dut
batzuetan, ez pentsa, baina ez
egunero.



"Goiari eutsi behar diogu,
maitea", esaten dit amak,
negarrez ikusten nauenean.

Eta lasai nadin goxo-goxo
laztantzen nau, eta musu asko-
asko ematen dit.

